

ANEXO I

**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO
DIDAKTIKOAREN EGOKITZAPENA**

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoaren egokitzapena
Adaptación de la Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	kodea: <i>código:</i>	015071
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/mail a: <i>ciclo/nivel:</i>	4
irakasgaia: <i>materia:</i>	PLASTIKA		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA	Arterako konpetentzia		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA ELKARTUAK <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia - Matematikarako konpetentzia - Teknologiarako konpetentzia - Gizarterako eta herritertasunerako konpetentzia 		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Gotxone Tutor	ikasturtea: <i>curso:</i>	2019-2020

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

Ikasteko eta pentsatzeko konpetentzia

Elkar bizitzarako konpetentzia

Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia

Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Hitzezko hitzik gabeko eta komunikatzeko konpetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
Honako hauek dira Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum-ak ikasgai honetarako zehazten dituen etapako helburuak:	Hauek dira Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum-ak ezarritako ebaluazio-irizpideak (irizpide bakoitzari dagozkion lorpen-adierazleak 236/2015 dekretuaren II. eranskinean biltzen dira):
1.- Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ondo samar ezagutzea eta erabiltzen jakitea, teknologia berriek sormen-lanetarako	EI1.- Proposatutako arazo artistikoarekin bat datozen euskarri, material, baliabide, prozesu eta prozedurak erabiltzeko gai

ematen dituzten aukera ugariak aprobetxatzea, teknologia horiek artelan konplexuak diseinatzeko eta garatzeko erabiltzea, eta kultura bisualean nagusi diren lan eta adierazpenetan identifikatzea eta balioestea.

2.- Gure kulturen diseinuarekin, ikus-entzunezko euskarria duten hedabideekin, eta objektu nahiz formen adierazpen-sistema teknikoekin lotutako **ekoizpen artistiko-estetikoko gune** eta esparruen berri jakitea, **eta horien kode espezifikoak** ondo ulertzea, mota horretako arte-adierazpenak kritikoki aztertzeke eta espresio- eta komunikazio-baliabidetzat erabiltzeke.

3.- **Emozioak, sentimenduak, bizipenak, ideiak**, eta natura nahiz kultura-inguruneke espazio, objektu eta elementuak adierazteke balio duten obra artistiko-estetikoak sortzea, eta horretan, **komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoan** eta autokonfiantzan aurrera egitea.

4.- **Bilaketa, irudimena, baliabide bisualen sormenezko manipulazioa** eta antzeko beste trebetasun batzuetan oinarrituta, eta ikuspuntu estetiko bati eutsiz, inguruko objektuak transformatzea, egoerak problematizatzea eta konponbide ugari proposatzea.

5.- Bakarka nahiz modu kolektiboan proiektu artistiko baten gaineko **plangintza** egitea, eta, gero, prozesu horri buruz **gogoeta** egitea, lortu nahi den horretan intentzioak, fase bakoitzaren berrikusketak eta **emaitzen ebaluazio kritikoak** duten garrantziaz ohartzeko, eta hori guztia dela eta, talde-lana arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziekiko errespetuz egin beharra aintzat hartzea.

6.- **Produktu estetikoek** pertsonen eta gizartearen bizitzan izan dituzten eta dituzten **funtzio eta erabilerak** ulertzea, eta korrante estetikoaren, moden eta gustuen bilakaeraz eta oparotasunaz jabetzea, horiek guztiek gure balioetan eta munduari nahiz gizakiari buruzko ikuskeretan zer-nolako eragina duten ulertzeke.

izatea, eta horiekin guztiekin ondo samar moldatzea bere arte-ekoizpenetan.

EI2.- Kritikoki aztertzea mezuetan esku hartzen duten baliabide plastiko eta bisualak, eta horretan, **mezuon intentzioari** eta mezuok iritzi publikoan, **bizi-estiloetan eta osasun indibidual nahiz kolektiboan** duten eraginari igartzea.

EI3.- **Espresio- eta komunikazio premietara** ondoen egokitzen diren bitartekoak hautatu, erabili eta identifikatzeko arazoak modu arrazoituan konpontzeko gai izatea, eta, hala behar izanez gero, bere arte-ekoizpenetan **hizkuntza bat baino gehiago** uztartzeko gai izatea.

EI4.- **Objektuak eta ingurunea irudikatzeke** konbentzioen **oinarrizko arauak** ezagutzeko eta erabiltzeko gai izatea, eta errealitateari buruzko informazioa ulertzeko eta erabiltzeko bidetzat hartzea horiek guztiak.

EI5.- **Espazioa irudikatzeke sistemak** desberdintzea eta erabiltzea, eta marrazketak artean, arkitekturan, diseinuan, ingeniarietan, eszenografiaren eta beste hainbat alorretan balio komunikatibo unibertsala duela aintzat hartzea.

EI6.- **Diseinua eta diseinuaren aplikazio-eremuak** balioestea, horiek aintzat hartzea, gure eguneroko bizitzako ekoizpen estetikoekin lotutako esparrutzat hartzea, eta haiekin lotutako sormen-teknikak eta -baliabideak erabiltzea.

EI7.- **Ikus-entzunezko edukiei eta multimedia-edukiei** buruz gogoeta egitea, horiekin esperimintatzea, eta ikus-entzunezko mundua komunikazio-bidetzat hartzeko gai izatea.

EI8.- **Artelan konplexuak** ekoiztea, eta horretan, mota askotako baliabide espresiboak modu arrazoituan erabiltzea.

EI9.- **Bilaketa, irudimena, sormenezko manipulazioa** eta antzeko beste trebetasun batzuetan oinarrituta, gai izatea beste pertsona batzuek proposatutako ideiak, irudikapena eta beste alderdi batzuk transformatzeko.

EI10.- Proposamen konplexu bat egin behar duela eta, **lan-prozesu bateko urratsak**

7.- Artea herri eta kulturen **ondare eta identitatearen parte** dela aintzat hartzea, eta, ondare oparo hori babestea eta sorberritzea helburu hartuta, eta elkartrukeak dakarren aberastasunaz jabetuta, kulturen arteko elkarrizketak eta herrien konpartitzen dituzten esperientzia artistikoek egindako ekarpen ugarietako interesa izatea.

8.- Norberarenaz eta gure inguruan nagusi direnez **bestelako espresibide estetikoak** errespetatzea eta aintzat hartzea, eta horretan, prozesu erreflexibo eta kritikoa martxan jartzea, estereotipo eta konbentzionalismoak gainditu, proposamenak egitean erregistroak zabaldu, eta malgutasunez, solidaritatez, interesez eta tolerantziaz jokatzeko ikasteko.

irudikatu eta **planifikatzeko** gai izatea, eta horretan, bere komunikazio-premiak aintzat hartzea, eta lan-plangintza horren zergatia arrazoitzeko gai izatea.

EI11.- Zenbait jarduera **taldean** egin eta fase bakoitzaren **antolaketa** parte hartzeko gai izatea, eta horretan, bere nahiz besteen ekarpenak balioestea, lortu beharreko emaitzak zein diren kontuan hartuta.

EI12.- **Sasoi historiko eta kultura desberdinetako artelan eta irudiak** kritikoki aztertzeko gai izatea, eta mundua ulertzeko ikuskera desberdinekin nahiz gizarteak naturaz eta gizon-emakumeoz proposatzen dituen diskurtsoekin lotzea artelan eta irudiok.

EI13.- Artea bizi garen **errealitatea interpretatzeko** eta ulertzeko bideetako bat dela jakitea, eta hura errealitateari buruzko beste ikuskera batzuekin (zientziarekin, esate baterako) lotzeko gai izatea.

EI14.- **Arte-adierazpenak etengabe aldatzen** ari direla jakitea, eta ohartzea artean beti daudela presente kulturen arteko erlazioak eta pertsonak nahiz gizarteek elkarrengan dituzten eraginak.

EI15.- Arte- eta kultura-adierazpenak hango eta hemengo **kulturen ondarearen eta identitatearen parte** direla ohartzea, eta zenbait motatako arte-adierazpenen ezaugarriak identifikatzeko eta konparatzeko gai izatea.

EI16.- **Gurean ohikoak ez diren espresibide estetikoak** kritikoki aztertzeko eta interpretatzeko gai izatea, eta espresibideok beste pertsona batzuen adierazpen legitimotzat hartzea.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1.Ebaluazioa: Marrazketa, auto irudia(simetria,auto erretratua, pertsonen gorputzen irudia). diseinu grafikoa haztapenak oinarrikzko kontzeptuak (logoak:isotipoa, soligoa, imagotipoa) Visual thinking (ikasteko eta adierazteko teknikak, ideien sitesia eta irudikatzea). Bodegoia.

Arazo egoera: agenda 21 erakusketa

Arazoa: institutan aurtengo agenda 21eko gaia aurkezteko erakusketa, uraren garrantziaren inguruko ausnarketa sustatzeko materiala sortu.

Ataza: Ikasleek institutuan jartzeko uraren garrantziaren inguruko kartelak eratuko dituzte

2. Ebaluazioa: bideogintza, animazioa, proiektu baten faseak planifikazioa, kolorea (kolorearen teoria, kolore paleta, akuarela, tenpera.) Irudien hermeneutika, irudien deskodetzea, animazioa, bideogintza. ikastza, margolaritza klasikoa, akuarela. argi iluna.

Arazo egoera: Ondarea sarietarako animazioa sortzea

Arazoa: taldeka 3 minututako bideoetan herriko aiton amonen errezetak animazio marraztuetan irudikatzea, bideo denak elkartuz bertoko menu bat eta menuaren berezitasunak azalaraziz.

Ataza: bideo bana egitea taldean, bideogintzak eta proiektu baten planteamenduak dituen aspektu danak kontutan izanik, timelinea, gidoia, grabazioa plana, baliabideen lortzea... Normalkuntza blogean eskegiko ditugu bideoak, euskara normalkuntzarekin elkar lana.

3. Ebaluazioa EGOKITZAPENA

Egungo egoera dela eta, ebaluazioaren gutxieneko helburuak eta edukiak moldatu ditugu eta horrelaxe landuko dira/*Debido a la situación actual los objetivos y contenidos de esta última evaluación se trabajarán de la siguiente manera:*

- Ikasturtea bukatu arte: ez dago berrezkurapena behar duen ikaslerik.
- Gutxieneko edukiak emanda eta gaingiduta dituzte ikasle guztiek.
- Hemendik aurrera egingo ditugun edukien sekuentziazioa ondorengoa da:

Edukien sekuentziazioa:

- irudien dekodifikazioa, irudien esan nahiak eta boterea
- ilustrazioa, boligrafoarekin marrazten irudien sintesia.
- arte proiektu baten sorkuntza (silueta itzala),
- soinu proiektua taleka, foley-a eta soinuarenkin narrazioak
- Bahuaus

Udako txostena eta Iraila:

Artista liburuxka:

koaderno txiki bat eta pilot moduko boligrafoa, arkatza, goma, eta pintzel bat dira beharrezko materialak eta ikasleak egunero marrazki txiki bat egin beharko du, bere bizipenak adierazteko, abstraktuak, errealistak, berdin da estiloa, kontua da liburuxka gainean eramatea eta bere emozioak adieraztea.

Liburuzka aurerra eramateko erronka zerrenda jarriko zaio (fotokopia bat) erronka zerrendan marazteko estilo eredu eta ideiak izango ditu. denek gaindutu dutenez, Liburuzka egitea lan boluntarioa izango da.

Irailan udako lanaren **zuzenketa** egingo da.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

BALIABIDE DIDAKTIKOAK. EGOKITZAPENA

Classroom bitartez ari gara klase ematen. Lanak normalean hor partekatzen ditugu ikasleekin.

Bideo- konferentziak egiteko, jitsi erabiltzen ari gara. / *Se imparten las clases en Classroom y es ahí donde se entregan las tareas normalmente. Para las vídeo-conferencias utilizamos jitsi.*

Clasromen: dauden baliabideak:

- gai bakoitzaren azalpenak eta gakoak
- ariketak egiteko argibideak
- materialak erabiltzeko eta lanak egiteko tutorialak

Jitsi bidez, saio denetan konektatue ta banakako azalpenak ematen ditugu, edo gai konkretu baten inguruan interes berezia dutenean azalpen osagarriak.

Beste baliabide batzuk:

-youtube.com
-canva.com
-collage.es
-pinterest.es
-pinetools
-audacity

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...] **EGOKITZAPENA**

INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN
[pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...]. **ADAPTACIÓN**

EBALUAZIO-TRESNAK
EGOKITZAPENA

- Klasean konektatzea
- klasromen porposaturiko ariketak entregatzea Ariketak egitea.
- Borondatez eginiko lan extrak
- klasromen egindako gai batzuen inguruko galdeketa
- ikasturte amiareako errubrika visual thinking

INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN
ADAPTACIÓN

- Conectarse a las clases online
- Las tareas de Classroom.
- Tareas extra (voluntarias)
- formulario preguntas acerca de temas específicos a través del classroom
- visual thinking como rúbrica de evaluación final de classroom

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa] **EGOKITZAPENA**

CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación]. **ADAPTACIÓN**

EGOKITZAPENA

-1go eta 2,ebaluazioko notak izango du pisu gehien. Horretaz gain, 3.ebaluazioko lan guztiek nota hori igotzeko erabiliko dira.

**Hala ere, 1go eta 2.ebaluazioko notan eragina izan dezake 3.ebaluazioan lan gutxi egiteak, klaseetara ez konektatzeak... justifikazio gabe.

-Berreskurapenak gaitzen duten ikasleek 5 kalifikazioa izango dute.

-Martxoaren 13tik aurrera:

Klaseetan konektatuta eta parte hartzen egotea, puntualitatea.%20

Lanak epean entregatzea, lanen kalitatea%80

CRITERIOS DE CALIFICACIÓN
ADAPTACIÓN

-Las notas de la 1ª y 2ª evaluación tendrán el mayor peso. El trabajo de la 3ª evaluación se tendrá en cuenta para subir nota.

No obstante, influirá en la nota final el hecho de que el/la alumno/a no haya trabajado durante la tercera evaluación o

	<p>no se haya conectado a las clases sin justificación aparente.</p> <p>-Las/os alumnas/os que recuperen la 2ª evaluación obtendrán 5 como calificación.</p> <p>-Desde el 13 de marzo:</p> <p>La asistencia a las clases online, la puntualidad, participación en clase : 20%</p> <p>Entrega de tareas en el plazo fijado, calidad de los trabajos:80%</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisis, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuerazio-sistema...].</p> <p><u>EGOKITZAPENA</u></p> <p><i>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...]. <u>ADAPTACIÓN</u></i></p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

<ul style="list-style-type: none"> •
